

# Entsaladatik euskalduntzera

EDORTA AGIRRE

*Hizkuntza eta nazioa* kontzeptuek antzeko edukia dute, biek: gutarrekin elkartzen eta gainerakoengandik bereizten gaituzte batak eta besteak.

## Sarrera

Pazientzia handiko irakurle miretsia, bide muturraren hasierara begiratzeak autoreari zerbait gazi-gozo garrazñoa noziarazi dion arren, letra hauetatik ez duzu Nobel sarira aurkezteko ezer probetxuzkorik. Lanari ekitean, gogoan izan dezagun egun, zorionez, aski modan zaigula autokritika edo auzokritika egitea, are kontrako eztarritik joanda ere, inoiz zinismo izpi batez.

Hasiera honetatik, barkamenak umil-umil eskatzen dizkiet mundua D ereduan sortua izan zela eta hizkera eta gainerako guztia hiztegiek agertzen dutena baizik ez dela sinesten duten hitzunei. Aspaldion bertsolaritzan, esku pilotan eta itzulpengintzan egin diren aurrerapenak ikusita, apaletik saiatu beharko.

## Euskalduntzeaz

Ama-hizkuntza, etxean eman zaizuna; sstia-hizkuntza, zeuk, buru-belarri, diziplinaz ikasi, erabili, irakatsi eta zabaltzen lagundu duzun hori.

Gogo jardun edo ariketa espiritualak egitera bildu gintuzten Ulia aldeko mojen aterpera Mariaren Bihotza edo Belarraren Pankrea ikastetxeko fraideek, dozena bat urte genuela eta Eliza frankismoa zela. Joxeanek zerbait idatzia zuen bere gelako armairuxkaren atzealdean, klarionez. Hara joanarazita, berak kriptograma erakutsi zigun, baina erdaldun peto hau artean ez zen gauza hango hitzik interpretatzeko. Euskara zela, bai, nonbait; hortik aurrera, jai. Alferrik ari zela.

—Begira, *Euskadi* hau da, Euskal Herria, eta *askatuta*, libre. *Gora*, gora da, etab.

Akaso hezur-muin edo kromosometan nekarren mezu haren funtsa; kontua da ehun bat toki ezkututan idatzi genituela hitz haiek hiru egun haietan, lagunak ohar-tarazita:

—Kontuz ibili, debekatua dago eta.

1963 hartan ez zegoen ezer debekatu gaberik. Kanean, helduekin hizketan, *politika* hitza esan, eta: «Ixo, hori ez da esaten hemen».

Fraide haietako batzuei esker jakin ahal izan genuen *el mula* eta *la suelo* («*Suelgo*, no: *suelo*») euskara garbia zela eta beste kontu asko. Esaterako, Ulia aldeko baserrietako ikasle eta gurasoei simaur usaina zeriela. Horregatik ez zekiten hizketan eta horregatik ateratzen zituzten nota txarrak. Barre algarra ederrak egiten genituen, sarri, *cashero* xeble edo ergel haien kontura gainerako euskaldunek eta erdaldunok, listuok non-bait.

1966ko udaberriko goiz batean, Parte Zaharreko frontoian eskuak berotzen, bakar-bakarrik. Arrain salmenta eginda, kaitik irten ezinik zeuden baporeak, portuko irteerako ur sakonera urri-urrikoa baitzen. Itsasgoraren zain, gertuko pilotaleku hartara arrimatu ziren arrantzale oriotarrak, ohi bezala. Bertaratuta, zerbait esan zuten.

Niri ote? Batere ulertu ez niela arropos-turik, tostarteko hark lagunei:

—Aizue, egin erdaraz, antiojodun horrek euskaraz ez daki eta.

Hala, denak espainolez, polizia honek derrigor-tuta. Lotsa eta amorrua; frakasoa. Pilota bertan utzita, handik alde egin, eta euskaraz ikasteko promesa hausnarrean.

Horrela, edonork «Euskaraz ba al dakizu?» galdetzean, «Oraindik ez» erantzuteko konpromisoa hartzea izan nuen bidea, artean koherentzia hitza ezagun ez bagenuen ere. Esan eta izan, izan eta izen, buzo berriaz jantzi eta, deitura ere, berria hartu genuen, sabindarra. «Elorza?». Ez, *Elorza* badakit esaten, baina ez da horrela. «Gorka?»... «A, bai, Elorta!». Pentsatzen jarrita, hobe Arana izengileak euskal senetik jo izan balu, disimilazioaren legea betetzeko, *Eduardo* eta antzekoak ez baitira bakanak gurean ere. Hori, etxean. Urrutiko kartzeletara bisitan, *Karlota* ere irakurri dute funtzionario erudituek nortasun-agirian. Arrazoa zuek, mundua oker.

## Kulpanteak

Kontua ez zen gabezia larri haren errua inori egozte, bizimodu goxoa dastatzea egokitu baitzitzaien gurasoei: beste askoren gisara, amari —Espainiako Errepublikako mezulari baten arreba— errizino olio harrarazi, ilea seko moztu eta kamisoian paseatu zuten jaioterri txiki hartan, jendeak barre egin ziezaioren. Tximista bezala, hartu eta hanka egin behar izan zuen handik, mehatxuak atzean utzita. Izena aldatuta bizi izan zen geroztik, sasiz sasi (Getxo, Hondarribia, Bera...), sukaldari, Donostiako jatetxe ezagun batean sartu arte. Ia sosik jaso gabe, jakina, lapurtutako jan-kondarrak eta kamaina latza aski baitzuten palazio hartako langileek, doña Nikolasak zioenez.

Aita, antzekoa: 1936ko uztailearen 17an etxera bidean, soldadutza bukatuta. Heldu aurretik, telegrama zain: «*Reincorpórese inmediatamente a filas*». Hurrengo hamaika

urteei hasiera emateko, fusilari heldu, eta Hendaia Kataluniara gerturatu ziren. Txangoan, bi heriotza-zigor bizkarreratu, Somalia-Hendaia (Hondartza) trenbidea aitzurrez jorratu, Aljeriako militar eta zamari frantsesuei jana prestatu, eta, arantzas josiriko indipikuez, barrukoz kanpora itzulita, elikatu, eta abar.

Moda-modan, beraz: oraingo gazteen modura, 30 urteak ondo pasatuta ezkondu ziren. Zer kontu eskatu haiei?

### Zergatik, zertako euskaldundu

Zergatik... Euskal gizartean txertatzeko baimena eskuratu nahi genuelako. Zeinahi klub, elkarte edo soziedadetan sarrerako kuota ordaindu behar bada, nolatan ez pagatu gizarte honetako kide izateko? Gustura, gainera.

Zertako hori errazagoa da: taldekide izateko. Zoriontsu izan nahi badugu, gu baino handiagoa den zerbaitetan (Athletic, jainkoak, loteria) sinetsi behar omen dugu. Beharbada, 68ko maiatz paristar haren eragin bereizgarriak gizarte zahar zaharkituaren dogma asko aldatzea eta bestelako gizataldeak eratzea izan zirelako. Hego Euskal Herrian, bederen, boterearen agintaritza jainkotiarra auzitan jarrita, modu askotako har eta pipiek jotako gizarte kontserbadore epel haren kontrako talde kultural, sozial eta sasipolitiko mordoa sortu edo osatu ziren, *erregimen urdinaren* amaiera hasteko: kultur talde berriak (*Ez dok amairu*, nagusi); eskultore eta pintore modernoak (Debako Eskola, Gaur, Ur, etab.); kooperatiba edo tankerako lantegi *horizontal* txiki asko; bestelako abesbatzak, folklore eta dantza

taldeak; sindikatuen jarduera nazionala; emakumea lan-merkatuan sartzea (etxeko atazak utzi gabe); gaur egungo antzerkigintza, kantagintza, poesia, narrazioa eta bertsogintza urbano edo molde berrikoak; Durangoko Azoka; egindako eta egiteko zentral nuklearren (Deba, Baiona, Lemoiz) aurkako mugimenduak; jendearen janzkera arinagoa; euskara batuaren hastapen sendoak; eskola sozial nazionalak eta estatalak; Eliza katolikoaren atzerakada humanitarioaren hasiera; euskal sukaldaritza berriaren gorpuztea (bezeroek bultzatuta)... Euskal Herrian Euskaraz hogeitau urte geroago munduratu zen, baina, zinez, horrelako zerbait eratzen ahalegindu ginen oilar gazte ausartegi batzuk, oraino erdaldun hutsak ginela. Gorbata-gabetasun hartan, gizaki distiratsutik talde iraunkorrera pasatu zen: Leonardo bakarra izan zen, baina antxoak oraindik bizi dira, herriaren eta herritarron mesederako. Aldez edo moldez, nornahi eta zernahiri zor zitzaion bizitzeko eskubiderik. Baita euskarari ere, Ustelandia frankista eta Autxerri jakobino haietako instituzio guztizien kontra.

### Panoramika (subjektiboa)

Errespetua norbaiti aitortzekotan,  
euskaltzaleari eta euskaldun berriari.

Joxe Austin Arrietak maitasunez, maisuki, goxotasun eta xehetasun osoz erakusten digu XX. mendearen erdialdeko paisaia hura, baina, gure etxean, bestela bizi izan zen, bera izatez eta heziketaz euskalduna izatearren eta gu, aldiz, kontrakoan, seguruenik. Baina hala zegoen antolatuta mundua.

Garai bizi-nahasi haietan, euskaraz nork ote zekien, baina? Ikusi batera, inork gutxik; auzokideei galdetu, eta: «Guk bai. Bueno, nik neronek, ez; gure ama zenak, ordea, hark bai euskara garbi polita!»; «Hemen inoiz ez da euskararik entzun», eta horrelako arrapostu gordinak jaso genituen, nahi baino gehiagotan, Donostiako Parte Zaharrean, mintza-praktikan aritu nahian. Tarteka, Koxkako (Bretxako) baserritarrei zerbait erostera joan, euskaraz hasi, eta haiek: «*¿Es que no te entiendo! ¿Media docena de manzanas? Hala, trae cuatro pesetas.*

Aldez —egun etxe guztien bihotzeraino iristen den telebista indartsuaren aitzindari, nornahiren gaineko informazio konfidentziala eguneratuta zeukan Elizak, eta, bide batez, frankismo osoak izuturik— edo moldez —euskaldun izatea modaz pasea zegoela, *munduko herritarra* (hots, madrildar edo paristar erdalduna) izatea zen joera modernoa—, euskara baztertuta zegoen kalean. Sekulako baztertua, toki askotan. Debekatuta, akaso ez zegoen nonahi legeak erabat debekatuta, baina ez zen jardunbide txukuna.

Kontuak ez esajeratzeko, aitor dezagun Donostian ere bazela euskaldunik: lagunetakoz batzuk, senideren bat, eta horrela. Euskaldun eta, agian, euskaltzale ere bai, baina kalean —gure aurrean, behintzat— ez zuten euskaraz egiten. Ezkutuko hitzuen eta ageriko zuzentzaile ziharduten; ikasi berri zenuen hura bota bezain laster, esakunea zuzenduko zizun: «Ez, hola ez da esaten». Laburtzeko, euskalduntzat agertzen zena ez zen gai euskaraz egiteko (*oso-oso-oso... baskoa* izan arren), eta egiazko euskaldunak

bereizgarri hori gorde egiten zuen, eskuarki, lagun minekin aritzean ez bazen.

Hedabide eta panfleto batzuek, irakurleak sinesten ez badu ere, *Los txiquis y los aitas, al polikiroldegui* eta antzekoak erakusten zituzten. Euskara tituluetarako utzita. Alde batekoek eta bestekoek, esatea itsusia bada ere. Gezurra dirudi nola aldatu den panorama, alajaina!

Euskaraz jabetzeko premiaz konpromisoa hartuta, Plazido Mujikaren *totxo* potoloa ekarri, eta beste hiztegi bat, baliagarria, sortzen hasi ginen, geure kabuz: debekatutakoen zerrenda. Berrehun tabutik gora bildu genituen berehalako batean, jendeak —berariazko ikasketarik gabeko herritarrek, bestelako herritarrik ez baitzen— zuzentzen zizkigunak apuntatuz: *handik aurrera* → *aurrerantzean*, *Dolox eta ni* → *Nekane ta biok, ibai* → *hibai, hibai* → *ibai, ur baso bi* → *baso bi ur* → *bi ur baso* → *ur bi baso (edallontzi)*...

Debeku haiek miatzen hasita, kontraesan mordoxka atzeman genuenez, ikasitakoaren parte handi bat desikasten hasi behar izan genuen. Informatzaile batek zuria esan, beste batek beltz-beltza, eta, hirugarrenak, ez batera eta ez bestera. Horri esker deskubritu genuen euskaldun euskaltzaleek ez zekitela euskaraz. Erdaraz idazten zutenek, aldiz... haiek bai jakin! Garbiago idazten zuten, gainera, espainieraz, hebreerazko eta magyarerazko argudioak mulkoka ipinita, bidezko adibide egokiak tartekatuta eta pertsiera klasikoko arauak gurera egokituta. Gurea izango zen, beraz, guk ondo ikasi eta inoiz menderatuko bide genuena, egiazko euskara garbia, hizkuntza benetan garbitzerik inori egundo bururatu ez omen zitzaion eta.

Hasierako egiaztapenak sendotzeko, erlijio liburu zaharren bat eskuratu genuen, erdal edo euskal bertsoia zuena. Anabasa, kaosa, nahi duzuna, itzulpena izan ezik: «Non esaten da Jainkoak besotik heldu ziola? Hemen, *le disuadió* baizik ez da agertzen». Baina... aurrera egin behar!

## Egiazko euskaldunak

Ez dago euskaraz; beraz, ez da euskalduna; beraz, ez da euskal herritarra, ez da gurea. Kontrakoa, behinik behin, emaitza politak agertu ditu historian.

Etxe hura altxatzen ari zirenak ez ziren idazle edo kazetariak, hizkuntzalariak baizik —gramatikariak, zehazki—, Euskaltzaindiaren osakerak frogatzen zuen gisara. Bestetik, ba omen ziren bizkarroi modukoak, beren burua bertsolari edo izkiriatailetzat zeukatenak, baina haiek ere beti berena; haiekin, alferrik zen. Zergatik esan duzu «*Atsaldion baitere plaz'hontara bildu zeraten danoiri*»?; «Ez dakit nola adierazi... gure herrian, horrela esaten da».

Gaizki, bide horretatik ere. Bertsolaria, zerbaiten arrazoirik emateko gauza ez bada, euskaraz ez dakien seinale. Amonak zioen: «Zikinak zikindu bai, baina garbiak ez du garbitzen». Alegia, larruak astintzeko garaian, trebeak ginen; euskaraz egiteko, baina, ez.

Objektiboki edo, euskaldunek zerabilten euskara, gainera, ez zen oso... Guk erdaraz *musculo* esaten genionari *mejilloia* zeritzon, betidanik, kanpotik etorri eta Parte Zaharrean taberna jarri berria zuen euskaldun peto-petoak, eta hala deritzo oraino ere; *chirónari*, *kalamarra*; *lampernari*, *pertzebea*; *changurruari*, *zentoiloa*.

Kolektibizazioari eta proletariotzaren internazionalizatzeari esker ikasi genuen bizkaieraz egiten zuten gajoek ere ez zekitela ondo: erdarakadaz beteriko lexikoa, intonazio arraroa, etab. Lapurteraz eta nafarrez mintzatzen zirenak, poliki bai, baina... Zuberotarrak, ordea, denetan maitagarriak, haiek bai exotiko eta zoragarriak! A, bai: lastima Erronkariko uskara hura, hiltzeko zorian zetzana.

Hots, euskararen bizi esperantza (presentzia) hutsaren hurrena zen, eta egoera hari buelta eman behar zitzaion, genion.

Autodidaktak ginen, ezinbestez; lanari ekin genion lagun taldean. Euskara ikasten hasi bezain laster, baratze hura txukuntzeko tentazioari uko egin ezinik, etxea altxatzen hasi ginen, oinarri sendo baten gainean: gure hizkuntza bestelakoa zen, beste ezein baino primitiboagoa; ez zen SOV egitura duten arrunt horietakoa, SOV edo OSV baizik. Ulergarri, ulergaitz edo ulertezina izan.

## Zergatik itzultzaile bihurtu (nahi)

Itzulpen-motak:

- beste hizkuntzan dagoena ekartzea helburu duena
- zerbait zuritzea xede duena

Nola, zergatik? Euskal gizartean goxoago bizi ahal izateko eta, agian, Unamuno eta Suarez analfabetoei arrazoia emateko, eta euskara diruaren aurrean gutxiesten duten feniziarrei txalo zaparrada jotzeko, eta euskara derrigor zabaldu behar duten instituzio zekenei ukazioaren bidetik segi dezatela berresteko, eta euskararen suspertzea *contra natura* eta absurdotzat jotzen zuten kooperatiben sortzaile argi haiekin eta beren

ondorengo dotrina-jarraitzaileekin enpatizatzeke, eta erdaraz hobeto dakielakoan euskaraz mintzatzeari uko egin eta idatziz edo mikrofono aurrean espainiera ezin kas-karragoan ari direnei gure mirespena adierazteko, eta Gaintxurizketan arabiar batek Parisko bidea zein den galdetzen dizunean euskaraz eta keinuz erantzun ordez espainieraz eta ozenki ihardesten dutenen jarrera bultzatzeko, eta jan-edan kontuez euskaraz egiterik merezi ez duela predikatzen dutenekin bat etortzeko, eta herria gorputza eta hizkuntza bihotza dela ukatzen diguten iragarle buruargi horiei euskaltzaleon omenaldi xumea eskaintzeko.

Denok dakigu elebakar gehien daukan hizkuntza *kanpeoi* dela; banku, armada eta hedabide ahaltsuak baditu, jakina. AEBko, Erresuma Batuko, Emirerri Arabiar Batuetako presidente elebidunik izan ote da behin ere? Pobreak, baliabidegabeok, ezjakinok bakarrik ikasi behar dugu beste hizkuntzarik, ahaltsu eta aberatsekin jarduteko eta haiek egindakoaren parte baten berri izateko. (Hortaz, herri indartsua izan nahi badugu, erdarez bakarrik segitu beharko).

Euskararen eta erdararen arteko zubia egitea genuen misioa. (Nola, *zein erdara?* Erdara, batu eta bakarra. Orduan ez zen gatzelaniaz egiten; Eufebidek ekarri zuen hori, beste hizkuntzetan bezala: espainieraren ordez, gatzelania; kaserna edo kuartelaren partez, ertzain-etxe, etab.). Baina itzulpengintzako atea itxita edo mugak, bederen, urrun eta zurrun ikusi ditut maiz, neu trebezia, sen edota ausardia eskasekoa izaki, dudarik gabe.

Nola itzultzen hasi, ordea; zer aldartez ekin itzulpen lanari? Bat, guk proposatuko

genukeen hizkuntzaren oinarritzko definizio bati helduta: hizkuntza gizakiek elkar ulertzeko tresnetako bat da. Elkar ulertze hori erdiesten ez bada, jai. Eta bi, harmonia, karentzia naturala, belarria, doinua edo dena delakoa. Eta, prozesu guztietan bezala, zerbait sakrifikatu behar izaten da beti: forma, tentsio-distentsioak, mezuaren parte bat, segida, estiloa... Manet pintoreak zioenez, koadroak duen zailtasun larriena azken pintzelkada zein izan den asmatzea da.

### Zergatik jan-edanen kontuak euskaratu

Zume horiekin, ordea, nolako saskia egin dezakegu? (Ez guk: euskal filologia pribatuaren antolatzaileek baizik) Inazio Agirre gogoan.

Sagardotegian *mojón!*, mendiko ostatuan *mondejus de Zaldivia*, tabernan *marmitaco* eta establezimendu herritar guztietan horrelako oinarria zegoela ikusirik, zeru aldera begiratu genuen. Alferrik, prezio biziko jaki izen luze aldrebes haiek ere frantsesez edo espainolez loratzen baitziren han, lainezaz. Urte batzuk joanak ziren goiko hasiera hartatik, eta sukarra arindu samarra bide zuen egunerokotasunak. Itsasoa utzitakoan, irakaskuntzan, sukaldaritzan, itzulpen lanean, artikulua egunkarietan idazten, zernahitan aritu ginen.

Lagun sukaldari batekin solasean, 1979 aldera hasi ginen euskal elikaduraren balizko fakultate bat eratzen: «Lehen urtean, euskaraz trebatu beharko dira ikasleak, eta hizkuntza horretan jantziko dira ikasgaiez: elikagaien ekoizpena, ezaugarriak, enologia, ekonomia, zuzenbidea...», espekulatzen genuen ia arratsaldero, lauretatik zazpiak arte,

orduantxe genuelako astirik, eguerdiko eta arratsaldeko txandak bereizita.

Euskaltzaindiak banatzen zituen tituluak eskuratuta, Euskal Filologia estudiantzen hasiak ginen, arratsaldez, Urumea ertzeko ikastegi pribatu batean. Irakasle haietako askok —Juan Mari Lekuonak, Joxe Azurmendik, Altunak— ederki egiten zuten euskaraz, baina, saskia etxeko zumitzez osatu behar zenez, beste asko erdaldun lasaiak ziren, hots, filologia mota hura gainditzeko, espainolez sendo jantzi behar zen; euskaraz, *xexxe*.

Han, unibertitate onetan bezala, dena duda, dena galdera. Eta, zalantza planteatuta, irakasleen aholkua: «Begira, hortxe duzu tesia egiteko gai aproposa». Trilioi pare bat tesi osatzeko materiala bai, baina hitzak bereiz, marra eta guzti edo elkarrekin idatzi behar ziren, hori ez omen zen hileroko fakturan.

Alderdi politikoek eta instituzioek, oro har, ez zuten euskara aintzat hartzen. Herri diruak halako edo bestelako xedera bideratzea ez da euskararen alde bizitzea, ez argazkilaritzaren alde baino areago. Hedabideen jokaera ere, aurrekoaren adierazgarri. Euskara suspertzeko, zabaltzeko eta ganoraz erabiltzeko dirua herritarraren patrikatik atera da, zergetatik aparte; denbora, larunbat eta igandetan. Boluntarismoa vs soldatak; diziplina eta militantzia vs (hatzez adierazitako) kargua. Gogoan al duzue Gipuzkoako Aldundiak ez oso aspaldi bultzaturiko *Aire, aire!* kanpaina hura, gipuzkoar erdaldunek protagonizatua eta beste hamaika minikanpaina, zerga-kondarrez eratuak?

## Tartetxo bat iragarkientzat. Elikadura hiztegia

*Jaio giñen, bizi gera, ez degu ezer eskatzen...* Tira, oraingoz, aurreneko biak bakarrik joko ditugu aintzat. Eskatu, eskean gabiltzalako.

Alferrikako bi hiztegi osatzea bururatu zitzaidan, aukeran: Miss Euskadi hautatzeari zegokiona edo elikadurari buruzkoa. Bietan alferrikakoena hautatu nuen, dudarik gabe.

Mundu hori ber-bertatik ezagun eta gustukoa izaki, elikaduraz idazten hasi ginen, aspaldi, *Egin, Deia*, EITB, *Argia*, *Egunkaria* eta *Berria* hedabideetan, izen-abizen eta guzti edo izengoitian gorderik, gure ezjakina ezkutatu nahian. Gastronomia, sukaldaritzza, enologia eta antzekoak, orduan, ez ziren sasoiko fruta preziatuak, baina, gure ustez, norbaitek hautsi behar zuen etendura, beste batzuek aurreko gabealdiak hautsi zituzten modura: Baionako sukaldari profesionalen *Escualdun cocinera* (1864), Eusebio Lopezen *Cocinan icasteco liburua* (Tolosako moldiztegia, 1889), Julene Azpeitiaren *Osasuna, merketza ta yanaritzaz* (Editorial Vasca, 1930). Mende erdia ondo pasea, *Sukaldaritzarako hastapenak* hura argitaratu genuen (Elkar, 1983); badakigu, ez euskarari, ez elikadurari ekarpen behinenik ez zion egingo liburuxkak, baina beldurrak uxatzeko balio omen zuen, bederen.

Hala, lotsak uxatuta, J. J. Lapitzen *Gau-rrerungo sukaldaritzza Euskadin* (Espasa-Calpe, 1985) moldatu genuen, espainieratik. Eta hark katea osatzeko aukera eman zigun, laster etorri baitziren Josu Urrutikoetxearen *Giltzapeko sukaldaritzza* (Hiru, 1996), Martin Berasategi taldeko kideen *Tabula. Arrautza* (autoreak editore, 2001),

J. F. Saint-Germainen *Foie-Gras* (Aurrera, 2002), Martin Berasategiren *Gipuzkoako gastronomia* (Kutxa, 2002), talde beraren *Guggenheim: su-arteana* (Guggenheim, 2002) eta *Tabula. Bakailaoa* (Montagud Editores, 2003), Andoni Luis Adurizen *Klorofilia* (egilea editore, 2004), P. Garcia Amianoren *Goi Euskal Sukaldaritzaren Miniaturan* (egilea editore, 2004), eta Juan Mari Arzakaren *Errezetak* (Bainet, 2004), *Mokaduak* (Bainet, 2007), *Errezetak* (Bainet, 2008) eta *Sekretuak* (Bainet, 2010). Denak enbor beraren adar berdintsuak, aspaldiko joerari jarraikiz: ezkerrean, argazkia, lehengaien zerrenda eta zertzelada pare bat; eskuinean, jakia prestatzeko urratsak eta aholku edo *trikimailuren* bat (batzuetan, badirudi ogitartekoa osatzeko opila irekitzea edo janari gatzat botatzea trikimailua dela. Agian, zuzen dabilta, martxa honetan).

Itzulpen lan horiekin, etxean eginikoak tartekatatu edo teilkatu genituen: *Almanaka 2003* (Pamiela, 2002), *Tabula. Bakailaoa* (egile-kide; Montagud, 2003). Azken horrek zenbait sari bildu zituen: Gourmand World Cookbook Awards saria (2003) arrainaz eginiko liburu onenari, Librería Gastronómica saria gastronomiari buruzko 2003ko agerkari hoberenari. Hurrengo *Euskal sukaldaritzaren antropologia* (Gaiak, 2004) izan zen, eta, oraingoan, zerrenda ixteko, *Baietz okerreko bidea aukeratu!* (Alberdania, 2006). Errezeta-kontuez beste libururen bat osatzeko eskaintza etorri bazen ere (Santiago Bidekoak, Euskadi berdekoak, tradizional gaurkotuak), nik uste nuen alor hori sobera jorratua zegoela, euskal irakurleak ez zuela interesik izango antzeko formulak behin eta berriz begiratzeko. Hortaz, gure partetik,

ezezkoa eman genien errepikapen ustez antzua haiei, beste batzuek ildo horretatik segitu zuten arren.

Eta, itzulitako eta idatzitako liburuez gainera, kazetaritza beti-gose aseeginak irentsi zituen milatik dezente gorako artikulua haiek prestatzeko bilatu edo asmatu behar izan genituen fitxak hasi ziren agertzen han-hemen. Gaiak (nutrizioaz, tradizioez, lehengaiez, teknologiaz, trazabilitateaz, euskararen presentziak, elikagaien segurtasunaz, antropologiaz, soziologiaz...) ordenatzeaz ekin, eta, ia-ia nahi izan gabe, ikusi genuen hiztegi moduko zerrenda potoloxka bat osatzen ari zela. Ordurako, alta, hiztegi gintzan saioaren bat eginda geunden: frantsesezko *Bordas* hiztegi entziklopedikoa euskaratzeko saioak egin genituen Alvarez Enparantza «Txillardegia» zenarekin, baina editorialaren porrotak eta arduradunen ihesak proiektua eraitsi zuen. Berriki Enciclopèdia Catalana-k sorturiko *Soziolinguistikako hiztegiaren* parte bat ere euskaratu genuen (2009), etab.

Alderdi askotan maisu eta zuzendari ditudan lagunei galdetu nien ea interesgarria izan al zitekeen elikaduraren gaineko hiztegia eratzea; haiek, irakasle dabilzian unibertsitatean galdetu, eta, baietz. Orriak osatu ahala, erakutsi, eta aurrera segitzeko.

Hala, 2010 urte hitsean (sozioekonomiaz ari gara) egin genituen estreinako bueltak, obra ezagutarazi eta baliabideak biltzeko asmoz. Eta, harrigarria bada ere, Basque Culinary Center izen-abizenekoak inongo arretarik ez zuen azaldu, nahiz eta haren aurrekoak (Euskal Herriko Gastronomia Etxea) interes bizia agertu zuen.



## Hiztegia zer den

Gurean, han-hemenka tamaina guztietako hitz zerrendak erdaratu eta euskaratu diren arren, monografiko honi ez diogu aurkitu arbasorik. Meritu handiko saiakera batzuetan, hitzak hizkuntzaz aldatzera mugatu dira autoreak, baina adierazle eta adierazi horietako asko hil egin dira, zaharkiturik (erretzea, *sensu stricto*, egun ez da frijitzea, *berakatz erreak* esan izan badugu ere), eta beste anitz sortu eta sortu ari dira, premia berriek aginduta; haiei ere atek zabaldu behar dizkie euskarak, aurrera egingo badu.

Hitzak, gehienez ere, itzuli egin ditugu (eta afizio edo ofiziozko itzultzaileok, askotan, ez dugu asmatu; bistan da) historikoki, baina sortu ez dugu egin, ez baitugu euskaraz jardun. Aurrerantzean elikadura munduan gure hizkuntzan zerbait serio egingo bada, ia erabateko hutsune hori bete beharra dago, euskararen normalizazio eta estandarizazio prozesua beste alor askotan aurrera eroso doala ikusirik. Sortzailea ez da izango itzultzaile hutsa, alor horretan diharduena baizik.

Euskaraz eratu, elikatu eta hausnartu da hiztegia, euskal unibertsoan hizkuntza bakar bat eredu edo euskailu hartu gabe, iturri biziak asko baitira egun: frantsesa (aspalditik), ingelesa, espainiera, japoniera...

Ez dakigu etorkizunean arrautza bat olio bero-beroan murgildu eta ezaugarriez aldaraztea frijitzea izango den; ez dakigu, berendiarekin eta urliarekin batera, sandia ere geratuko den gure artean ala angurriak kanporatuko duen. Guk hemen proposatzen duguna etorkizunean berretsi, egokitu edo baztertu beharreko zirriborro bat baizik ez

da, daukagun euskal apurño triste honetatik irteteko, ezer ez egitea izan bailiteke hanka sartzetik larriena.

## Nolakoa den

Bi idazlanek osatzen dute obra:

- Hiztegi hutsa edo *glosarioa*: hitza edo esakunea bere soilean agertzen da, eta, ondoren, euskal sinonimoak; segidan, adiera zientifikoa, latinez; hurrengo zutabeetan, haren baliokideak, espainieraz, frantsesez eta ingelesez.
  - *Hiztegi entziklopedikoa*: aipaturiko hitz horiez gainera, eta terminoaren garrantzia aintzat hartuta, azalpen orokorrak datoz: termino horren etimologia (gehienetan), jatorria, historia edo bilakaera, hedadura, nolakotasunak, aplikazio edo erabilerak, gurean duen presentzia, prestaerak hemengo sukaldaritzan eta, bidezko bada, argibideren bat.
- Sarri, testua izugarri luzatu ordez, taulak ezarri ditugu lagungarri, adierazi nahi dugunaz ikuspegi orokor edo sistematizatu izan dezagun ikusi batera.

Tamainaz ari garela, hiztegi entziklopedikoak 1.500 orri inguru hartzen ditu (hiru milioi karaktere, Word formatuan); bukatutzat eman ditzakegun hitzak 3.860 dira; egun egiteko daudenak, 3.700 inguru.

Bi lanak hemen ikus daitezke:

- Elikadura Hiztegia (glosarioa): <http://es.calameo.com/read/003784223b8d745e146cc>
- Elikadura Hiztegi Entziklopedikoa: <http://es.calameo.com/read/003784223c56df4939476>

### **Norentzat**

Norentzat ez, ordea? Euskara aintzat harturik sukaldaritza, elikadura, nutrizioa, dietetika, bromatologia eta abar jorratzen, ikasten edo irakasten ari direnentzat; terminoek jabeturik idazlanik sortu edota euskaratu nahi dutenentzat; ostalaritza lanetan dihardutenentzat (sukaldari, laguntzaile, zerbitzari, *sommelier*, *chef*, *mître*, antolaitzaile, biltegizain); hedabideetako esatari eta kazetariarentzat; herri administrazioetako langileentzat; lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza, arrantzan), bigarrenean (elika-gaien industrian) eta hirugarrenean (ostalaritzan, oro har) dabiltzanentzat, eta nahi duen nornahirentzat da, egun, baliagarri. Aurki, mesedegarria izango da bere burua alfabetatutzat daukan herritar ororentzat, elikatzeak berariazko arreta eskatzen baitu

gure osasunaz, ekonomiaz edo ongizateaz arduratzean.

### **Zertarako**

Dagoeneko, erdaretatik ekartze edo kopiatze hutsa ez da aski; geure lanabesak eratu edo egokitu behar ditugu, gerora ere sortu ahal izan dezagun, geure sortze-lanaz jabetu gaitezen, kultura eta erudizio arrotzen jopu izan ordez, haien klixekak landu gabe irentsi ordez.

Alboko hizkuntza guztietan, ohikoak dira trukatzekak, maileguak, kalko semantikoak, eta abar, kasuan kasuko nortasunari eutsita. Ez luke itxura ederrik emango gure elikadurak kanpotik terminorik jaso ezean, edo denak erdaretatik hartuko balitu, adibidez; edo, are eta okerrago, espainieraz eta frantsesez bakarrik mintzatuko balitz.

### Resumen

Relata el autor cómo no tuvo la suerte de ser (también) vascoparlante en su remota niñez, evocando su proceso de inserción en la sociedad vasca, tras solicitar autorización para aterrizar en ella; la concesión de licencia no suele ser gratuita, como bien sabe el euskaldunberri. La lengua nos aproxima, nos une, pero también nos hace de segunda y de primera, nos expulsa si no utilizamos la buena, si elegimos expresarnos en la prescindible.

Como colofón, se suplica auxilio para dar a la luz una obra aún inexistente, un vocabulario que se refiere a la alimentación, eso tan inasequible para el euskera, aunque en Occidente la practicamos tres veces al día.

### Résumé

L'auteur raconte qu'il n'a pas eu la chance d'être (aussi) bascophone dans son enfance lointaine, tout en évoquant son processus d'insertion dans la société basque, après avoir demandé l'autorisation d'y entrer ; généralement, l'octroi de cette licence n'est pas gratuit, comme plus d'un euskaldunberri (personne ayant appris le basque à l'âge adulte) peut le témoigner. La langue nous rapproche, nous unit, mais également, elle fait de nous des locuteurs de seconde et de première catégorie, elle nous expulse si nous n'utilisons pas la bonne, si nous choisissons de nous exprimer dans celle qui est accessoire.

Pour finir, il lance un S.O.S. pressant pour faire paraître une œuvre encore inexistante, un lexique ayant trait à l'alimentation, ce qui semble si inaccessible à l'euskara, bien qu'en Occident nous la mettons en pratique trois fois par jour.

### Abstract

The author explains that he did not have the luck of (also) being a Basque speaker in his distant childhood, remembering the process of his insertion into Basque society, after requesting authorization to land there; the granting of a license is not usually free, as anyone who has learned Basque rather than acquired it knows all too well. The language brings us together, unites us, but also divides us into first- and second-class speakers.

To close the article, help is requested to publish a work that does not yet exist, a vocabulary that refers to meals, something so unattainable for Basque, even though in the West we practice it three times a day.